

*Martinek*

# Grabatzaile izan nahi du

Aprendiz gazteak klaseak ditu arratsaldero Udal Marrazki Eskolan. Marrazketa eta erreminten erabilera asko landu behar dira grabatzaile on bat izateko. Benetako artistentzat gordetako lanbidea da hau, armen metalezko zatien apainduretan erakusten dute euren trebetasuna.

Urteetan zehar mailua eta gubilarekin lanean aritzen zirenen kolpe erritmikoen zaratak hartu zituen Eibarko kaleak. Etxebizitzan beheko solairuetan zeuden lokal txikiak, logelak eta baita sukaldeak ere artisau tailer bihurtzen ziren.

"Grabatzaile" izeneko kale bat ere egon zen Eibarren, armagintzaren lanbide klasiko honen oroigarri gisa.



ARMAGINTZAREN MUSEOA  
MUSEO DE LA INDUSTRIA ARMERA

a r m a g i n e n l a n a k



# GRABATZAILEAK ETA DEKORAZIO TEKNIKAK ¿ZER OTE DA HORI?

Metalezko piezak apaindu eta hauen jatorria erakusteko hizki, irudi eta markak egiteko arteari esaten zaio GRABATUA.

Gure inguruan, XVI. mendeaz geroztik da ezaguna eta batez ere armagintzari lotua dagoela esan genezake. Armaginek, piezen kalitatearen berme gisa, puntzoiarekin marka bat egiten zieten. Gero, funtzionamendu egokia egiaztatzeko froga batzuk gainditu beharko zituzten piezek eta hauek gaindituz gero, prozesuan parte hartutako maisu aztertzaile bakoitzaren puntzoiarekin beste behin markatuko zituzten.

Dekorazio tekniken artean aipagarria damaskinatuarena da. Urrea eta zilarra altzairuan txertatzean datza. Damaskinatzaileak, armagin grabatzaileen arteko "aristokrazia" zirela esan ohi da.

Marrazketa, batez ere artistikoa, menperatzea ezinbestekoa da jarduera honetarako. Hau zela eta, aprendiz guztiak marrazketa eskolak hartzera joaten ziren, gehienetan lan orduetatik kanpora.

## MARRAZKETA ESKOLA

1779. urtean sortu zen armagileen gremioak bultzatuta. Ikastaldia gazte gaztetatik hasita egiten zuten, grabatzaile aditu baten aldamenean beti. Armagintza haranean ekoiztutako arma guztien perfektionatze eta apainduraren aurrera pauso bat egiten laguntzea zen marrazketa eskolaren helburuetako bat. Marrazketa eskola bat izateak prozesuaren teknika hobetzea ekarri zuen batez ere. Gaur egun lanean jarraitzen duten grabatzaile askok Eibarko Udak marrazketa eskolan egin zituzten ikasketak.



## TAILERRA

Lanerako aproposena egunaren argia da dudarik gabe eta horregatik dago lan-mahaia leihate handi baten aldamenean kokatua.

Argindarrrik ez zegoen garaian, kriseilu edo kandelaren argiaz baliatzen ziren, batez ere egunaren amaieran. Etxean bakoitzaren kontura egiten dute lan ia guztiek, eta oso arrunta da gainera aldi berean lantegi batean lan egitea. Mahaiari helduta dagoen tornuari lotzen dizkiote lanerako piezak. Lana eroso-agoa egiteko bere ardatzaren gainean bueltak ematen ditu honek. Armaginek urdinez jantzita egiten dute lan, grabatzaileek aldiz zuriz.





# Lanabesak



Eskuaideak, eskuz grabatzeko erabiltzen diren gubilak.

Gubilak eskulanetan erabiltzeko erremintak dira. 10 -15 zentimetroko luzera eta 2 eta 5 milimetro arteko lodiera duten altzairuzko xaflez daude osatuta. Aldeetako bat alakatua dago eta bertan kokatzen da ondo zorrotutako erronbo itxurako elementu ebakitzalea. Hauekin marra estuak nahiz zabalak egin daitezke. Marra kurboak egiteko erabiltzen diren gubilek sekzio eliptiko edo zirkularra dute.

Eskuz grabatzeko erabiltzen direnak eskuaide deitzen dira eta motzagoak izaten dira. Eskuazpiarekin kolpetxoak erosotasunez emateko egurrezko eskutokia dute eskuaideek.

Mailuarekin kolpatzen diren gubilak lodiagoak dira. Eskutokiak sekzio zilindrikoa edo hexagonal izan dezake, ez dute egurrezko eskutokirik eta meheagoak dira metala lantzeko erabiltzen den aldea. Eskuz nahiz mailuaz kolpatuz grabatzeko erabiltzen diren gubilak zorrotzak egotea ezinbestekoa da.


Grabatzaile on batek ondo menperatu behar du zorrozte prozesua. Ondo zorrottua bada, grabatzaileak errazago kontrolatuko du

gubilak egingo duen marra. Gure zonaldean erabiltzen den beste gubil mota bat *atzamarduna* da. Orrazi itsurakoa da eta irudi eta letren itzalak egiteko erabiltzen da.



Aniceto Moreno  
"Rubito" grabatzaileraren lanabesak.  
/Armagintza museoa.

Eskuz egindako puntzoiak: lettrak, zenbakiak eta aurpegi bat ere ikus dezakegu. Puntzoiak duen irudia alderantziz sartuko da metalean.



Kolpezko teknikan erabiltzen diren gubil eta markadore desberdinak.



Gubilak zorrotzeko olioeko harria



Grabatzaile mailua

# G R A B A T Z E



## Ataujiak

ere ekialdean du bere jatorria.

Armagintzaren hastapenetatik luxuzko armak apaintzeko erabili zen Eibarren teknika hau. Gubilarekin egindako ildo edo arrakala urre eta zilarrezko hari edo xaflekin betetzeari esaten zaio ataujia.

Luxuzko arma askok armaginaren izena eta fabrikazio urtea daramate idatzita.

Askotan kainoen kalitatearen adierazle *Ferrazkoa* edo *zintazkoa* hitzak ere irakur ditzakegu. Izan ere ferra zaharrak eta zinta edo alanbrea erabiltzen zituzten sarritan kainoiak forjatzeko.

Ataujiaz egindako marrazki hauek damaskinatuaren antz handia dute.

**Mailuzko grabatua** ere erabiltzen du arma grabatzailerak. Gubiak grabatzaile mailuaz kolpatzean arraildurak eginten dituzte eta burdinazko txirbilak ateratzen dira haketatik. Poliki poliki, eskumuturraren mugimenduek gidatuta, altzairu lava ebakidura eta erliebez beteko da.





# T E K N I K A K




Dekoraziorako grabatuan arkatzez egindako marrazkia eskopetaren baskula gainean kopiatzen da.

**“Eskuaide”** bezala eza-gutzen da eskuzko teknika hau. Gubil hauek eskuekin bultzatu eta kolpatzen dira, pultsuan. Grabatzaileak egiten duen indarra kontrolatuz eta gubilari behar duen inklinazioa emanez lortuko du behar duen arrakala mota. Gaur egun irudi arabiko klasikoak, animalia basatiak, ehiza marrazkiak edo Elvis Presley beraren irudiak ere ikus ditzakegu grabatuetan. Hau guztia bezeroaren mandatua eta artistaren kreatibitatearen baitan egongo da.

## Grabatu industrialak

ere existitzen da. Hizki, zenbaki eta beste irudi batzuen matritzea duten puntzoiak estanpatzean datza. Marken errotulaziorako eta lan handiagoak egiteko rodana eta laserra bezalako teknikak erabiliko dira.






# EIBARREN, ARTELAN

Pistoi giltzetan egindako grabatu batzuk adibide gisa. XIX. mendeko luxuzko armen kolpekarietan artistek lehoiak eta bestelako animalien formak lantzen zituzten.

1844. urtean Pedro Arangurenak Eibarren egindako eskopetaren xehetasun bat.



Erliebean egindako ataujia eta grabatuaren adibideak. Antonio Doiztua armagin eibartarrak ekoiztu eta urrez sinatu zuen arma hau Trubiako Errege Fabrikan (Asturiasen)




Arma honen giltzaren platina Soroluzeko Jose Astigarragak sinatu du.

# BIHURTZEN DUGU



Galbarsorok Eibarren fabrikatutako pistola-laban bitxi honek zizel eta gubilekin egindako grabatuak ditu.



Eibarren eta inguruko herrietan ekoiztutako eskopeta fin guztiek grabatu lan ordu asko dituzte baskulan.







*"Eskerrik beroenak Eibarko armaginei tailerrak  
ireki eta beraien lanbidea erakustea gatik"*

## GRABATZAILEAREN HIZTEGIA

**Atauja:** Gubil batekin egindako arrakalak urre eta zilarrezko hari edo xaflatxoekin betetzean datzan ekialdeko dekorazio teknika.

**Damaskinatua:** burdina edo altzairuan urre eta zilarra txertatze teknikari esaten zaio. Damaskinatu beharreko pieza prestatzeko hiru noranzko desberdin jarraitzen dituen marradura xume bat egin behar da lehen-dabizi. Prozesuaren amaieran, urre eta zilarrik gabeko eremuak herdoildu ez daitezen ilundu edo *txarolatu* egin beharko dira.

**Eskuaide:** gubilak eskuaz maneiatzeko teknikari esaten zaio. Gubilaren inklinazioa eta eskuaz ematen zaion kolpearen kontrola fun-tsezkoak izango dira metalean egin nahi den arrakala lortzeko.

**Grabatua:** piezak apaintzeko edo eta hauen jatorria adierazteko metalaren gainean hizki, marka edo irudiak egiteari esaten zaio.

**Grabatzaile bola:** 15 kiloko galda-burdinezko bola. Damaskinatzeke piezak pikian itsasten dira eta hau era berean grabatzaile bolari eutsi behar zaio. Bola hau egurrezko triangelu baten gainean ezartzen denez edozein aldera biratzea posible da.

**Kolpekako gubila:** grabatzaile mailuarekin gubilak kolpatzean datza. Artistaren esku-muturraren mugimenduek gidatuko dituzte mailua eta gubila. Gutxinaka metalezko txirbilak ateratzen ditu nahi duen irudia lortzeko.

**Lakrea:** "*pikia*". Damaskinatzeke pieza txikiak eusteko erabiltzen den ore gorria. Erretxina, pika beltza, gantza eta burdin oxido gorriaz egiten da.

**Ogi zuria:** damaskinatzaileek erabiltzen dute olio eta gasolinan bustita. Materiala eta amaituta dauden piezak garbitzeko da baliagarria.



## GEHiago JAKITEKO... (BESTE BATZUEN ARTEAN)

**Carmelo Urdangarin, Jose María Izaga:** "12 oficios Armeros".

Gipuzkoako Bazkundera, Donostia, 2003.

**Ramiro Larrañaga, Nerea Alustiza:** "El Grabado en Eibar, Nuestros Grabadores". Ego Ibarra. Eibarko Udala, 1996.

**Pedro Celaya, Ramiro Larrañaga, Juan San Martín:** "El damasquinado en Eibar". Ed. RSBAP, Donostia, 1977.

**Martinek... grabatzaile izan nahi du  
Armagintza Museoa. 2012  
Eibar, tailer-hiria. Eibarko Udala,**



Testuak eta diseinua:

Jose Valderrey

Marrazkiak: Yulen Zabaleta

Martintxoren marrazkia:

Jose Carreira.

Argazkiak:

Jose Valderrey, Felipe Loiola

Armagintza Museoko Bilduma.

Creative Commons Legal Code

Aitortu-EzKomertziala-

LanEratorririkGabe

3.0 Unported (<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/>).

Testuak, marrazki eta argazkiak:  
bakoitzaren egilea.

[www.armia-eibar.net](http://www.armia-eibar.net)

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Kultura saila

Departamento de Cultura



Gipuzkoako Foru Aldundia.  
Diputación Foral de Gipuzkoa



Eibarko Udala  
Ayuntamiento de Eibar